

EMAKUMEAREN ASTEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ARGAZKI LEHIAKETA OINARRIAK

- ANTOLATZAILEA: Aretxabaletako udala
- PARTAIDETZA: Nahi duten argazkizale guztiek har dezakete parte.
- GAIA: Emakumearen asteko edizio honetan "emakumea eta kirola" izango da gaia. Horren inguruan parte-hartzaileak nahi bezain zabala eta irekia izango da aurkeztuko duen lana. Lehiaketan parte hartzeko bidali emakumea eta kirolari buruzko argazki bat. Bestalde, sari berezia izango du ekimen astean antolatutako "I.go emakume bira"-ren inguruko argazkiak. Aipatutako lasterketa ekainaren 7an izango da.
- MODALITATEA: Euskarri digitalean aurkeztu beharko dira argazkiak (CD-an edo pendrive-ean), zuri-beltzean edo koloreetan.
- ARGAZKI KOPURUA: Partaide bakoitzak gaiarekin lotutako nahi adina argazki aurkez ditzake.
- IDENTIFIKAZIOA: Argazkiak izenburua edo leloa eraman beharko du. Gutun-azal itxi batean izenburua edo leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira, ondoren dagoen inprimakia beteta: egilearen datuak, telefonoa, posta elektronikoa eta oinarriak onartzen direla ziurtatzen duen sinadura azaldu behar dira. "Emakume bira"ko argazkirik aurkeztuz gero argazkiaren izenburuan adierazi.
- AURKEZTEKO EPEA: 2013ko ekainaren 7tik 11ra , eguerdiko 12:00ak arte.
- LANAK UZTEKO LEKUA: Aretxabaletako Arkupe kultur etxea.
- EPAIMAHAI A: Argazkigintzan adituak diren kidez osatua egongo da, eta hauen erabakia apelaezina izango da. Irabazleen izenak ekainaren 14an argitaratuko dira udalaren web orrian eta komunikabideetan.
- SARIAK:
 1. go saria: 150 €
 2. saria: 100 €
 3. saria: 50 €
 4. "I.go emakume bira"ko argazki onenari saria: 50€
- LANEN ESKUBIDEAK: Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Aretxabaletako Udalaren jabetzan geldituko dira eta Aretxabaletako Argazki Artxiboaren parte izatera pasako dira. Aretxabaletako udalak lan guztiak erakusketa bat egiteko edo lanak jende aurrean erakusteko eskubidea izango du.
- OHARRA: Oinarri hauetan agertzen den zerbait sortuko balitz erabakia antolatzaileen esku geratuko litzateke. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri-arau guztiak onartzen direla suposatzen du.

IZEN/ABIZENAK:

TELEFONOA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

I. Emakumearen asteko argazki lehiaketan parte-hartzeko oinarriak onartzen ditut.

Sinadura